

## Atletismoa

# Seiehun partehartzaile bildu nahi dira EGUNKARIAREN aldeko krosean

Zazpigarren ekitaldia apirilaren 13an korrituko da Donostiako Antigua auzoan

**A**tzodanik irekita dago EGUNKARIAREN aldeko krosean parte hartzeko izena emateko epea, eta apirilaren 10a bitartean izango da zabalik. Hala ere, lasterketa egunean bertan ere eman ahal izango da izena. Lasterketa antolatzen duen Bagera elkarteak 600 partehartzaile bildu nahi ditu aurtengo ekitaldian.

Aitor Ugalde / Donostia

APIRILAREN 13an korrituko da EGUNKARIAREN aldeko Antiguako Krosa. Antiguako Bagera elkarteak antolatzen du lasterketa, eta aurtun zazpigarren ekitaldia izango da. Urtez urte bere lekua hartzen ari da Antiguako Krosa, eta bide horretatik jarraitzea nahi dute antolatzaileek. Partehartzea, esate baterako, igotzen joan da urtetik urtera. Iaz 560 atleta inguruk hartu zuten parte. Aurtengorako antolatzaileek daukaten helburua 600ekoa da.

Izena emateko epea irekita dago, atzodanik, eta apirilaren 10a arte iraungo du. Gipuzkoako hainbat herritan, eta Gasteizen, Bilbon, Iruñean eta Baionan ere eman ahal izango da izena. Partehartzaileek mila pezeta ordaindu beharko dute izena emateko orduan (40 libera), eta une horretan jasoko da dortsala. Hemezortzi urtetik beherakoek 500 pezeta ordaindu beharko dute.

Era guztietara, lasterketa egunean bertan ere, lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago arte, eman ahal izango da izena,



Iazko lasterketaren irteera. ARTXIBOKOA

Antiguako Platero tabernan. Izena egun horretan ematen duenak 1.200 pezeta ordaindu beharko ditu (50 libera).

Lasterketa goizeko 11:00etan hasiko da. Ibilbidean ez da aldaketarik egongo iazkoarekin alderatuz, hamar kilometro izango ditu. Antiguako itzuli bat eman ondoren, Zarautz, Tolosa eta Zumalakarregi hiribideetatik, Haizearen Orrazira, hortik Miramar jauregira, Pio Baroja eta Itsasmendi kaleetatik pasatu, eta amaiera Antiguako Matia kalean izango du. Zirkuituak igaro txiki bat dauka Miramar jauregiaren

inguruan, lasterketako zortzigarren kilometroan gutxi gora-behera. Partehartzaileek ordu eta laurdeneko denbora izango dute ibilbidea osatzeko.

Lasterketa bakarra izango bada ere, adinaren arabera banatutako hiru multzo egingo dira bai emakumezkoen artean, bai gizonezkoen artean. 16 urtetik 18ra bitartekoak sartuko dira lehen multzoan, 19tik 49 urtera bitartekoak bigarrenengo eta 50 urtetik gorakoak hirugarrenengoak. Bakoitzeako lehen hirurek trofeoa jasoko dute. Guztiek kamiseta bat jasoko dute.

Iaz Iñaki Bodegasek eta Elena Fernandezek irabazi zuten. Aurtun zurrenik ez dira ariko: Fernandez lesionatuta dago eta Bodegasek duatloirako entrenatzen ari da.

**Azkoitia-Azpeitia maratoni erdiaren aurkezpena** • Antiguako Krosa ezin hobeto datorkie Azkoitia-Azpeitia maratoni erdia prestatzen ari direnei. Lasterketa hori hilaren 20an izango da. Gaur eguerdian egingo da nazioarteko maila duen lasterketa horren aurkezpena. Diego Garciak parte hartuko du. X

## Saskibaloia

## Bilbao Patronatok gaur hasiko du LEB Ligako titulurako kanporaketa Melillaren aurka

Askatuak, berriz, jaitsiera kanporaketako lehen partidua jokatuko du Teneriferen aurka

Erredakzioa / Donostia

BOST partidutara jokatuko du Bilbao Patronatok Melillaren aurkako kanporaketa. Lehen bi partidua Melillan jokatuko ditu, lehena gaur 20:30etan, eta bigarrena etzi 18:00etan. Hurrengo biak Bilbon jokatuko lirarteke datorren asteko ostegunean eta larunbatean eta bosgarrena, behar izanez gero, Melillan apirilaren 19an.

LEB Ligan laugarren postutik 12.era bitartean sailkatu diren taldeek jokatuko dute titulurako lehen kanporaketa. Kanporaketa hori gaintzen duten taldeek, LEB Ligako lehen lau postuetan

sailkatu diren taldeen aurka jokatuko dute bigarrenengo kanporaketan. Bilbao Patronatoren kasuan, Melilla gaintzen badu, Breogan talde galiziarren aurka jokatuko beharko du. Lehen kanporaketa jokatzen den bitartean, lehen lau sailkatuek (Huelva, Breogan, Caja Cantabria eta Gijon Baloncesto) Asturiasko Printzea Kopa jokatuko dute.

Bilbao Patronato atzo joan zen Melillara eta igandean itzuliko da Bilbora. Jose Antonio Figueroa entrenatzaileak jokalaria hauek eraman zituen: Jorge Garcia, Iñigo Perez, Jose Maria Pradera, Jose Antonio Romero, Enrique

Hermosilla, Kenneth Roberts, Jeff Nordgaard, Jose Posada eta Eduardo Pascual.

Melillak seigarren postuan amaitu du LEB Ligako ligatxoa. LEB Ligako talderik indartsuena da aurrekontu aldetik, 100 milioi pezetako aurrekontua baitauka (4 milioi libera).

**Askatuak Tenerifen kontra jokatuko du gaur** • Askatuak jaitsierako kanporaketako lehen partidua jokatuko du gaur Teneriferen aurka Donostian (20:00). Kanporaketa hau ere bost partidutara jokatuko da eta titulurako kanporaketak jokatzen diren egunetan jokatuko da.

Askatuak kantxaren abantaila dauka, bosgarren partidura helduz gero Donostian jokatuko baita.

Kanporaketako gaitzaileak ez du mailarik galduko aurtengo denboraldian. Baina, hala ere, kanporaketak badu bere garrantzia. Izan ere, bi denboralditan jarraian azken postuan geratzen den taldeak edo hiru denboralditan jarraian azken hiruren artean sailkatuta gelditzen den taldeak maila galduko du.

Tenerife talde gaztea da. Wallace pibota fitxatu berri dute eta horrekin indartu egin dute barneko jokoa. Defentsa da haren punturik ahulenetako. X

## laburrean

## FUTBOLA

### ■ Barcelona-Las Palmas gaur Errege Koparen finalaurrekoan

BARCELONA eta Las Palmas futbol taldeek Errege Kopako bigarren finalerdiko itzuliko partidua jokatuko dute gaur, gaueko 21:30etan, Camp Nou zelaian. Kataluniako taldeak 0-4 irabazi zuen joaneko lehiaketan, eta ez luke batere arazorik izan behar aurrera egin eta Kopako finala jokatzeke. Partidua A3 kateak zuzenean eskainiko du. X

### ■ Klausula ordaintzen badute, Nuñezek libre utziko du Ronaldo

JOSEP LLUIS NUÑEZ Barcelona futbol taldeko lehendakariak Ronaldo jokalaria ez dio trabarik jarriko ekipoa denboraldi amaieran utz dezan, baldin eta 4.000 milioi pezetako klausula ordaintzen badute (160 milioi libera inguru). Nuñezek esan du Barcelonak ez duela inolako itunik hautsi, taldearen eta jokalaria artean asmoen txosten bat besterik ez dagoelako. X

## SASKIBALOA

### ■ Olympiakos taldeak Erromako finalean egoteko txartela eskuratu du

GREZIAKO Olympiakos taldeak Europako Ligako finalean izateko txartela lortu du, Panathinaikos herenegun gauean bigarren irabazi eta gero (65-57). Finalaurreko gainerako hiru partiduetan egundoko lehia gertatu zen, eta etxean jokatzen zuten ekipoek kanporaketa berdintzea erdietsi zuten. Gauzak horrela, taldeok hirugarren partidua jokatuko dute gaur bertan, finalera zein pasatuko diren erabakitzeke. Barcelonak kostata irabazi zion Teamsystem Boloniari (75-73), baita Olimpia Liublianak Milango Stefanel taldeari ere (73-69), eta Villeurbannek erosoago Turkiako Efes Pilseni (80-70). X

### ■ Real Madrid eta Riello Verona Europako Kopako finalean

REAL MADRID eta Riello Verona taldeek jokatuko dute Europako Kopako aurtengo finala, finalerdietako kanporaketa uste baino lan gehiagorekin gaintzen ondoren. Real Madridek ozta-ozta irabazi zuen Racing Parisen kontra, frantziarren etxean: 56-58. Riello Veronak, berriz, jipoi jaso zuen Salonikan Irakilisen aurka (76-56), baina italiarrek etxean lortu zuten aldea nahikoa izan zen haien zat finalerako pasea eskuratzeko. Finala Nikosian jokatuko da, hilaren 15ean. X